

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5856

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurrez ikusitako laguntzen 2020rako deialdia.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko abenduaren 11ko batzarrean hartutako Erabakiaren bidez, onartu egin du laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurrez ikusitako laguntzen deialdia, eta, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren estatutuen 10.2 artikuluen p) letran xedatutakoaren arabera, organismo autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio hori argitaratzea.

Azaldutakogatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitaratzea laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurrez ikusitako laguntzen 2020rako deialdia. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2019ko abenduaren 11ko bileran hartutako erabakiaren bidez onartu zen, eta ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Bigarrena.— Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, zeinaren bidez deialdia onartzen baita, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 11.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO SAILBURUAREN 2009KO MAIATZAREN 4KO AGINDUAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZEN 2020RAKO DEIALDIA, LANERATZEKO ENPRESAK SORTZEKO ETA MANTENTZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA

2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren bidez (2009ko maiatzaren 26ko EHAA, 98. zenbakikoa) arautzen dira laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko ematen dituen laguntzak. Laguntza horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak abiarazi zituen, enpresa horiei laguntza emateko, betiere haien ezaugarri eta beharrei egokituta. Horren esparruan, dirulaguntzak aurreikusten dira laneratzeko enpresak sortzea sustatzen duten erakundeentzat, bai eta laneratzeko enpresentzat ere, mantendu ahal izan daitezen.

2009ko maiatzaren 4ko aipatutako Aginduaren 17. artikulua berariaz xedatzen du urtero egingo dela bertan aurreikusitako laguntzen deialdia, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak bertan adierazten du aurrekontua zenbatekoa den eta eskabideak aurkezteko epea. Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 8. artikuluan xedatzen denez, enpleguari eta gizarteratzea sustatzeari buruzko politika Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumena da.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu, enplegurako prestakuntzako eta autoenplegu eta enpresen sorkuntzako programak kudeatzeko eskumena, indarrean dagoen urriaren 13ko 3/2011 Legean ezarrita dagoenez. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, 2011ko urtarrilaren 1ean martxan jarri zenez geroztik, bere gain hartu du laneko legedia betearazteko arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzeko ardura, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan; eta bere gain hartu du, halaber, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak enplegu-politika aktiboen arloan betetzen zituen eginkizunen kudeaketa. Eginkizun horien artean dago 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntza-programa kudeatzea.

Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bitartez onartutako Lanbideren estatutuen 3. artikuluko b) letran xedatutakoarekin bat etorrira, enplegurako, enplegu-prestakuntzarako, autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko programen barruan sartzen da dirulaguntzetarako deialdiak onartzea ere, eta erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluari dagokio funtzio hori, halaxe baitago ezarria aipatutako estatutuaren 7. artikuluko f) letran.

Era berean, laguntzak kudeatzen dituen organoa aldatu denez, eta publizitatea eta segurtasun juridikoa errespetatze aldera, komenigarria da laguntzak jaso ditzaketenei jakinaraztea dirulaguntzak emateko prozeduraren xehetasunak eta betebeharrak, 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitakoarekin bat ez datozenak.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hala proposatuta, erakunde autonomo honen Administrazio Kontseiluak 2019ko abenduaren 11ko saioan onartu du Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako 2020rako laguntzen deialdia. Agindu horretan arautzen dira laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak, baldintza hauetan:

Lehenengoa.— Eskabideak aurkezteko epea.

Laguntza hauen eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, eta 2020ko irailaren 30era arte luzatuko da.

Bigarrena.— Diru-baliabideak.

1.— Deialdi honen helburu diren laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak honako hauek izango dira: guztira 10.370.000 euro; horietatik, 2.020.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, 3.240.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari, 3.240.000 euro 2022ko konpromiso-kredituari eta 1.870.000 euro 2023ko konpromiso-kredituari, 3211 programaren kargura – Enplegua, 41. Sekzioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.

Baliabide horien bidez estaliko dira 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzak, Aginduaren 11.a) artikuluan aurreikusitakoak izan ezik.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupeetzen duen Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, laneratzeko enpresak mantentzeko 2020ko ekitaldirako laguntzen ebazpenak emateko, kreditu egokiak eta behar bestekoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020. urterako aurrekontu orokorretan.

3.— 2020ko laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko aipatutako zenbatekoa, edo, indarreko legeriarekin bat etorrita aurrekontu-aldaketak onartuz gero, zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena. Eguneratzerik balego, horren berri eman beharko litzateke. 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan araututako laguntzak estaltzeko diru-baliabideei buruzko gainerako aurreikuspenak agindu horretako 23. artikuluan daude jasota.

Hirugarrena.— Dirulaguntzak jasotzeko eta emateko baldintzak.

Laguntza horiek jasotzeko eta emateko baldintzak 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan azaltzen dira.

Laugarrena.— Laguntzen prozedura, tramitazioa eta ebazpena, eta onuradunen betebeharrak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartu duenez laguntzak kudeatzea, era honetan eragiten dio 2009ko maiatzaren 4ko Aginduko erregulazioari:

1.— Diruz lagun daitezkeen eskabideak egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira. Honako esteka honetatik sar daiteke bertara: <https://euskadi.eus>. Gainera, sarbide-esteka bat egongo da Lanbideren webgunean bertan.

Eskaeraren ondorengo izapideak egiteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus>

Izapideak modu elektronikoan egiteko argibideak helbide honetan aurki daitezke: <https://euskadi.eus>

2.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzeko Aktibatze Zuzendaritzak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta Lanbide erakunde autonomoko zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

3.– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtoa ere aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Laguntza hauek estaltzeko aurrekontu-kreditua eguneratu edo agortuko balitz, horren berri emango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez, eta EHAAan argitaratuko da.

5.– Erakunde onuradunek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko diote diruz lagundutako jardueren izaera edo helburua aldatzen duen gorabehera oro; eta, bestalde, aipatu jardueren egiaztapen, ikuskapen, segimendu eta kontrolari dagokionez, erakunde autonomo horrekin kolaboratu beharko dute.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa duela adierazi beharko du berariaz erakunde onuradunak, dirulaguntza jasotzen duten eta horien dibulgazioa, hedatzea, edo, hala badagokio, argitaratzea dakarten jarduera guztietan.



ESKABIDEA

LANERATZEKO ENPRESAK SORTZEKO LAGUNTZEN ESKAERA

Urtea: 2020

(Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren 3. eta 4. artikulua)

ESKATZAILEA:.....

SARRERA-ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA

ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

ESPEDIENTE-ZK.:



ESKAERAK AURKEZTEKO BIDEA

Dirulaguntza-eskabideak egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira. Honako esteka honetatik sar daiteke bertara: <https://euskadi.eus>. Gainera, sarbide-esteka bat egongo da Lanbideren webgunean bertan.

DATUEN BABESA

Tratamendu-jarduerak	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Xedea	Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzen kudeaketa eta kontrola.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea.
Datu-lagapenen hartzaileak	Arloan eskumena duten administrazio publikoak.
Eskubideak	Zuk zeure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko ere; informazio gehigarrian azaltzen da nola erabili eskubideok.
Informazio gehigarria	Gure webguneko pribatutasun-politikaren atalean kontsulta dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza. (http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/condiciones de uso y politica de privacidad/)
Honako hauek betetzearren: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)	



ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK			
Enpresa eskatzailearen izena:		IFK.	
Jarduera:		EJSN:	
Helbide soziala:			
Herria:		Posta-kodea:	Lurralde historikoa
Telefonoa	Fax zenbakia	Posta elektronikoa	
Gizarte Segurantzako inskripzio zk.:			

ERAKUNDE-ESKATZAILEAREN MOTA (MARKATU DAGOKIONA)	
Irabazi-asmorik gabeko erakunde sustatzaile pribatua	☐
Toki-erakundea	☐
Tokiko edo eskualdeko garapen-agentzia	☐



Eskatzailea:
 NAN:Ordezkatzen duen erakundea:
 Eskatzen du
 euroko laguntza eman dakion laneratze-enpresa bat sortzea bideragarria den ala ez jakiteko merkatu-azterlanak egiteko. Enpresaren hasierako izena:

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

(Markatu dagokiona X batez)

Lehenena

- ☐ Ez dut beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik jaso helburu bererako, inongo Administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatutik.
- ☐ Helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza bat eskatu dut.....
 (e)(a) ☐ eta eskabide hori:
 ☐ Izapidetzen ari da.
 ☐ Baztertua izan da.

Bigarrenena.

- ☐ Ez nago itzultzeko edo zehatzeko inongo prozeduraren eraginpean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzaren bat dela-eta.

Hirugarrena.

- ☐ Ez didate ezarri zehapen penal edo administratiborik, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, eta ez nago hartarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean.

Laugarrena.

- ☐ Ez nago administrazio-edo zigor-arloan zehatuta sexua dela-eta diskriminatzeagatik, eta ez didate debekatu euskal administrazio publikoen laguntza eta dirulaguntzen deialdietan parte hartzea Emakumeen eta Gizoneen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta.

Bosgarrena.

- ☐ Ez nago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurrez ikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Seigarrena.

- ☐ Eskabide honetan emandako datuak egiazkoak dira.

ESKATZAILEAREN / ORDEZKARIAREN NORTASUNA ETA ZERGEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOKO BETEBEHARRAK BETETZEN DIRELA ELEKTRONIKOKI EGIAZTATZEA.

Lanbidek automatikoki eskuratuko du eskatzaile/ordezkariaren nortasuna, bai eta zergen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak.

- ☐ Aurka egiten diot Lanbidek eskatzailearen/ordezkariaren nortasuna ofizioz egiaztatzeari.
 (Aurka daudenek, NAN/AIZ agiriaren fotokopia aurkeztu beharko dute).
- ☐ Aurka egiten diot Lanbidek zergen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak ofizioz egiaztatzeari.
 (Aurka daudenek, betebeharrak egunean dituztela adierazten duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte).

....., 20.....(e)koaren(a)



Sinadura

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- ☐ 1.- Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.
- ☐ 2.- Erakunde sustatzailea eratzeko eskritura edo akta eta bazkideen erregistroarena (dokumentazio hori aurkeztu beharko da soilik azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren 7. artikulua arabera, eskatzailea irabazi asmorik gabeko erakunde sustatzaile pribatua den kasuetan).
- ☐ 3.- Erakunde sustatzaileak lan-merkatuan sartzeko zailtasuna izan dituzten pertsonak lan munduan eta, oro har, gizartean integratzeko egin duten ibilbidearen gaineko memoria. (dokumentazio hori aurkeztu beharko da soilik azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren 7. artikulua arabera, eskatzailea irabazi asmorik gabeko erakunde sustatzaile pribatua den kasuetan).
- ☐ 4.- Merkatu-azterlanerako aurkeztu nahi den laneratze-enpresa sortzeko proiektua, aurrekontuarekin batera.



ESKABIDEA

14

**LANERATZEKO ENPRESAK
MANTENTZEKO LAGUNTZEN
ESKAERA**

(Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren 5. artikulua eta hurrengoak)

Urtea: 2020

ESKATZAILEA:.....

SARRERA-ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA

ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

ESPEDIENTE-ZK.:



ESKAERAK AURKEZTEKO BIDEA

Dirulaguntza-eskabideak egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira. Honako esteka honetatik sar daiteke bertara: <https://euskadi.eus>. Gainera, sarbide-esteka bat egongo da Lanbideren webgunean bertan.

DATUEN BABESA

Tratamendu-jarduerak	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Xedea	Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzen kudeaketa eta kontrola.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea.
Datu-lagapenen hartzaileak	Arloan eskumena duten administrazio publikoak.
Eskubideak	Zuk zeure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko ere; informazio gehigarrian azaltzen da nola erabili eskubideok.
Informazio gehigarria	Gure webguneko pribatutasun-politikaren atalean kontsulta dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza (http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/condiciones de uso y politica de privacidad/)
Honako hauek betetzearren: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)	



LANERATZEKO ENPRESA ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK			
Enpresa eskatzailearen izena:		IFK:	L.E.ren erregistro zk. Inskripzio-data
Jarduera:		EJSN:	
Helbide soziala:			
Herria:		Posta-kodea:	Lurralde historikoa
Telefonia	Fax zenbakia	Posta elektronikoa	
Enpresako langile-kopurua, guztira:		Laneratzeko bidean dagoen langile-kopurua:	
Gizarte Segurantzako inskripzio zk.:			
☐ Merkataritza-sozietatea ☐ Ekonomia sozialeko sozietatea			

LANTOKIA (helbide sozialaren berdina ez bada)			
Helbidea:			
Herria:		Posta-kodea:	Lurralde historikoa
Banku-erakundea		Kontu-zenbakia	

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA (eskuineko zutabeen X batez marka ezazu eskatutako laguntza)	
Aktibo finkoetako inbertsionarako (7. art.)	
Laneratzeko bidean dauden pertsonen lanpostuetarako (8. art.)	
Produkzioan laguntzeko teknikarien lanpostuetarako (9. art.)	
Laneratzeko laguntzeko teknikari espezializatuen lanpostuetarako (10. art.)	
Laguntza teknikorako, kontabilitateko eta kudeaketako auditoriarako (11. b) art.)	
Prestakuntzarako (12. art.)	

(1) Eskatutako laguntza adierazi ondoren, bete itzazu orri hauetatik dagozkionak.



.....jaunak/andreak,NAN
zenbakidunak,
laneratzeko enpresaren ordezkari, euroko laguntza eskatzen du, enpresa hori mantentzeko
gastuak estaltzeko; horretarako, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du:

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

(Markatu dagokiona X batez)

Lehenena

- ☐ Ez dut beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik jaso helburu bererako, inongo Administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatutik.
- ☐ Helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza bat eskatu dut.....
(e)(a)n, eta eskabide hori:
- ☐ Izapidetzen ari da.
- ☐ Baztertua izan da.

Bigarrenena.

- ☐ Ez nago itzultzeko edo zehatzeko inongo prozeduraren eraginpean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzaren bat dela-eta.

Hirugarrena.

- ☐ Ez didate ezarri zehapen penal edo administratiborik, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, eta ez nago hartarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean.

Laugarrena.

- ☐ Ez nago administrazio-edo zigor-arloan zehatuta sexua dela-eta diskriminatzeagatik, eta ez didate debekatu euskal administrazio publikoen laguntza eta dirulaguntzen deialdietan parte hartzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta.

Bosgarrena.

- ☐ Ez nago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aurrez ikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Seigarrena.

- ☐ Eskabide honetan emandako datuak egiazkoak dira.

ESKATZAILEAREN / ORDEZKARIAREN NORTASUNA ETA ZERGEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOKO BETEBEHARRAK BETETZEN DIRELA ELEKTRONIKOKI EGIAZTATZEA.

Lanbidek automatikoki eskuratuko du eskatzaile/ordez kariaren nortasuna, bai eta zergen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak.

- ☐ Aurka egiten diot Lanbidek eskatzailearen/ordez kariaren nortasuna ofizios egiaztatzeari.
(Aurka egonez gero, NAN/AIZ agiriaren fotokopia aurkeztu beharko da).
- ☐ Aurka egiten diot Lanbidek zergen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak ofizios egiaztatzeari.
(Aurka daudenez, betebeharrak horiek egunean dituztela adierazten duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte).
....., 202.....(e)koaren(a)

Sinadura



ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Oro har, dirulaguntza guztietan:

- ☐ 1.- Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.
- ☐ 2.- Urteko kontuak eta ekitaldi bakoitzaren amaierako kudeaketa-txostena.
- ☐ 3.- Hastera doan urterako jarduera-plana eta aurrekontua, eskatzen den laguntzari dagozkion dirulaguntza lineei dagokienez.

Aktibo finkoetako inbertsioetarako dirulaguntzetan:

- ☐ 4.- Inbertsio proiektua

Laneratzeko bidean dauden pertsonentzako lanpostuak sortzeko eta mantentzeko dirulaguntzetan:

- ☐ 5.- Sor litekeen lanpostu-kopuruaren aurreikuspena, eta sorrera hori denboran zehar nola banatzea espero den.

Produkzioan laguntzeko teknikarien lanpostuak sortzeko eta mantentzeko dirulaguntzetan:

- ☐ 6.- Dirulaguntza zenbat lanpostutarako eskatzen den (aurreikuspena).

Laneratzen laguntzeko teknikari espezializatuen lanpostuak sortzeko eta mantentzeko dirulaguntzetan:

- ☐ 7.- Dirulaguntza zenbat lanpostutarako eskatzen den (aurreikuspena).

Laguntza teknikorako dirulaguntzetan:

- ☐ 8.- Kontabilitateko eta kudeaketako auditoriak egiteko dirulaguntzetan, auditoria-proiektua.

Prestakuntza-ikastaroetarako dirulaguntzetan:

- ☐ 9.- Enpresaren prestakuntza-plana. Bertan adieraziko dira, gutxienez, ikastaroen zerrenda, ikastaroak jaso ditzaketen ikasleen kopurua eta ikastaroak emango dituzten erakundeen zerrenda.

Aipatutako agiriez gain, aplikatu beharreko araudian ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen diren guztiak aurkeztu beharko dira.



LANERATZEKO ENPRESAK ESKATUTAKO LAGUNTZA MOTA

1.- AKTIBO FINKOETAKO INBERTSIOETARAKO DIRULAGUNTZAK (7. ART.)

INBERTSIOARI BURUZKO DATUAK	
Aktibo finkoaren mota:	Kostua (BEZik gabe)
Eskuratze-data:	
Destinoa:	

INBERTSIOARI BURUZKO DATUAK	
Aktibo finkoaren mota:	Kostua (BEZik gabe)
Eskuratze-data:	
Destinoa:	

INBERTSIOARI BURUZKO DATUAK	
Aktibo finkoaren mota:	Kostua (BEZik gabe)
Eskuratze-data:	
Destinoa:	

INBERTSIOARI BURUZKO DATUAK	
Aktibo finkoaren mota:	Kostua (BEZik gabe)
Eskuratze-data:	
Destinoa:	

INBERTSIOARI BURUZKO DATUAK	
Aktibo finkoaren mota:	Kostua (BEZik gabe)
Eskuratze-data:	
Destinoa:	

INBERTSIOARI BURUZKO DATUAK	
Aktibo finkoaren mota:	Kostua (BEZik gabe)
Eskuratze-data:	
Destinoa:	

ESKATUTAKO LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: _____ EURO



2.– LANERATZEKO BIDEAN DAUDEN PERTSONENTZAKO LANPOSTUAK SORTZEKO ETA MANTENTZEKO DIRULAGUNTZAK (8. art.)

2.1.– Ekitaldi honetan dirulaguntza amaitzen zaien laneratzeko postuak, zeinak laneratzeko bidean dauden pertsonak betetzen jarraituko baitituzte. Deialdi honetan, hiru urteko laguntza berri bat eskatzen da.

[illegible]

(1) Lanpostua gizonezkoarentzat (G) ala emakumezkoarentzat (E) eskatu den.



2.2.- Lanpostu berriak (lehen aldiz eskatzen da dirulaguntza), ekitaldi honetako urtarilaren 1etik eskabide hau aurkeztutako unera arte sortuak.

[illegible]

2.3.– Lanpostu berriak (lehen aldiz eskatzen da dirulaguntza), eskabide hau aurkeztzen den unetik ekitaldi honetako abenduaren 31ra arte SORTUKO direnak, aurrez ikusitakoaren arabera.

[illegible]

ESKATUTAKO LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: EURO



3.– EKOIZPENEAN LAGUNTZEKO TEKNIKARIENTZAKO LANPOSTUAK SORTZEKO ETA
MANTENTZEKO DIRULAGUNTZAK (9. art.)

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	• Laneratzeko enpresa • Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:		Aurreikusitako kostua:

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	• Laneratzeko enpresa • Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:		Aurreikusitako kostua:

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	• Laneratzeko enpresa • Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:		Aurreikusitako kostua:



Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	☐ Laneratzeko enpresa ☐ Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:	Aurreikusitako kostua:	

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	☐ Laneratzeko enpresa ☐ Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:	Aurreikusitako kostua:	

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	☐ Laneratzeko enpresa ☐ Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:	Aurreikusitako kostua:	

ESKATUTAKO LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: _____ EURO



**4.– LANERATZEN LAGUNTZEKO EKINTZETAN ESPEZIALIZATUTAKO TEKNIKARIENTZAKO
LANPOSTUAK SORTZEKO ETA MANTENTZEKO DIRULAGUNTZAK
(10. art.)**

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	• Laneratzeko enpresa • Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:	Aurreikusitako kostua:	

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	• Laneratzeko enpresa • Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:	Aurreikusitako kostua:	

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	• Laneratzeko enpresa • Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:	Aurreikusitako kostua:	



Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	☐ Laneratzeko enpresa ☐ Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:		Aurreikusitako kostua:

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	• Laneratzeko enpresa • Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:		Aurreikusitako kostua:

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		NAN:
Erakunde kontratatzailea:	• Laneratzeko enpresa • Sustatzailea	
Kontratu-mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %:		Aurreikusitako kostua:

ESKATUTAKO LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: _____ EURO

5.– LAGUNTZA TEKNIKORAKO DIRULAGUNTZAK (11. art.)☐ KONTABILITATEKO ETA KUDEAKETAKO AUDITORIA

Titulua / izena:		
Auditoriaren helburua:		
Hasiera-data:		Amaiera-data:
Auditoria egingo duen erakundea edo pertsona:		
Helbidea:		Herria: Posta-kodea:
Probintzia:	Telefonoa:	IFK / IFZ
Kostua, aurrekontuaren arabera (BEZik gabe):		ESKATUTAKO ZENBATEKOA:



6.- PRESTAKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK (12. art.)

PRESTAKUNTZA-IKASTAROA		
Ikastaroaren hasiera-data:	Ikastaroaren amaiera-data:	
Ikastaroa egingo duten pertsonak:		
Ikastaroa emango duen erakundea:		
Ikastaroa non egingo den:	Herria:	Helbidea:
Probintzia:	Telefona:	IFK / IFZ:
Kostua, aurrekontuaren arabera (BEZik gabe):	ESKATUTAKO ZENBATEKOA: (euro)	

IKASTAROKO JOAN-ETORRIETARAKO DIETAK
Autopistako gastuak:
Garraiobidea erabiltzeak eragindako gastuak:
ESKATUTAKO ZENBATEKOA: (euro)

PRESTAKUNTZA-IKASTAROA		
Ikastaroaren hasiera-data:	Ikastaroaren amaiera-data:	
Ikastaroa egingo duten pertsonak		
Ikastaroa emango duen erakundea:		
Ikastaroa non egingo den:	Herria:	Helbidea:
Probintzia:	Telefona:	IFK / IFZ:
Kostua, aurrekontuaren arabera (BEZik gabe):	ESKATUTAKO ZENBATEKOA: (euro)	

IKASTAROKO JOAN-ETORRIETARAKO DIETAK
Autopistako gastuak:
Garraiobidea erabiltzeak eragindako gastuak:
ESKATUTAKO ZENBATEKOA: (euro)